

# KANPO HARREMANETARAKO PLANA JARDUEREN JARRAIPENA **2017 URTEA**



## AURKIBIDEA

|                                                                                                                                                                            |           |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>AURKIBIDEA .....</b>                                                                                                                                                    | <b>1</b>  |
| <b>1 SARRERA.....</b>                                                                                                                                                      | <b>4</b>  |
| <b>2 KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN 2017KO JARDUEREN JARRAIPENA .....</b>                                                                                    | <b>7</b>  |
| 2.1 1. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Euskadi munduan proiektatzea».....                                                                             | 7         |
| 2.2 2. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak kanpoan sustatuz» ..... | 11        |
| 2.3 3. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Europaren eraikuntzan partaide eta erantzunkide izatea» .....                                                  | 17        |
| 2.4 4. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Kanpoko euskal gizataldearekin Euskadiren harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea» .....                   | 22        |
| 2.5 6. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea handitzea» .....                                     | 25        |
| <b>3 ONDORIOAK .....</b>                                                                                                                                                   | <b>29</b> |

## TAULEN AURKIBIDEA

|                                                                                               |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. taula. KHPren 1. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017 | 8  |
| 2. taula. KHPren 2. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017 | 12 |
| 3. taula. KHPren 3. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017 | 18 |
| 4. taula. KHPren 4. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017 | 23 |
| 4. taula. KHPren 4. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017 | 27 |

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. KHPren 1. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017 ....8
2. irudia. KHPren 2. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017 ..12
3. irudia. KHPren 3. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017 ..18
4. irudia. KHPren 4. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017 ..23
5. irudia. KHPren 6. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017 ..26
6. irudia. KHPren helburu bakoitzaren proiektu kopurua eta ehunekoa, 2017 .....29

## 1 SARRERA

**2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia**, aurrerantzean EBC, 2014az gero Euskadi nazioartekotzeko politika bere esparru tematiko guztietan gidatzen duen tresna da, eta bere helburua da *«Euskadi eragile global moduan kokatzea XXI. mendeko abangoardian, Europaren eraikuntzan espazio berekia duela, Herrialde erakargarria, oso lehiakorra, bere bakantasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta atzerriko euskal komunitatearekin estu konektatua»*. Ikuspen hori nazioartekotze helburu estrategikoen multzo baten bidez gauzatzen da, eta helburu horiek, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze jarduera arazten duten **nazioartekotzeko lau sektore komunean** jasota daude:

- V1. Euskadi kanpoan proiektatzea
- V2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei erantzuten laguntzea
- V3. Europako esparruarekin lerrokatzea
- V4. Ezagutza atzitzea

Maila operatiboan, EBCK, esparru dokumentua denez, **Nazioartekotzeko Plan Sektorialak** sortu eta zehaztea aurreikusten du, bereziki protagonismo eta kanpo jardura handiena duten eremuetan. Ikuspegi horretatik, 2014an martxan jarri zen, EBCKekin batera, **Kanpo Harremanetarako Plana** (aurrerantzean, KHP), Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren nazioarteko jardura gidatzen duena. Hau da bere misioa:

*Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak programatu, bultzatu eta koordinatzea, efizientzia eta koherentzia printzipioen mende, eta helburu birekin, hots, Euskadi eragile globalaren posizioan jartzea eta munduan euskal interesak aldeztzea. Horretarako, Euskadiren ordezkari instituzionala izango da eta beste herrialdeekin, eskualdeekin eta nazioarteko herri erakundeekin lotura egonkorak ezarriko ditu, Europako herri erakundeetan zuzenean parte hartzeko bidea zabalduko du, kanpoko euskal gizataldearekin harremanak estutuko ditu eta nazioarteko elkartasun ekinbideak martxan jartzea bideratuko du.*

Misio hori aurrera eramateko, planak **bost helburu estrategiko** ezartzen ditu, 19 ekintza ildotan egituratuta, eta 70 jardura konkretutan konkretatuta. KHPn zehaztutako helburu estrategikoak bat datoz EBCKo sektoreekin eta hauek dira:

- 1. helburu estrategikoa: Euskadi munduan proiektatzea
- 2. helburu estrategikoa: Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak kanpoan sustatuz
- 3. helburu estrategikoa: Europaren eraikuntzan partaide eta erantzunkide izatea
- 4. helburu estrategikoa: Kanpoko euskal gizataldearekin Euskadiren harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea
- 6. helburu estrategikoa: Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea handitzea.

**2014-2016 hirurtekoa**, KHPren jarduerak eta proposatutako jomugak betetzeari dagokionez, oso gogobetegarria izan zen, jarritako jomugak gainditu egin baitziren planteatutako jarduerarik gehien-gehienetan. Datu horrek agerian uzten du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusi osoaren lan sakona Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko harremanak areagotzeko, bai bere hiru zuzendaritzen lanari esker (Kanpo Harremanetarako, Europako Gaietarako eta Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaritzak), bai atzerriko ordezkariak (Estatu Batuak, Mexiko, Argentina-Mercosur, Txile-Peru-Kolonia), Europar Batasunerako Bruselako euskal ordezkariak eta Euskadiren Madrilgo bulegoko ordezkariak lanari esker.

2014an ezarritako KHPk, horrela, baliozkoa eta egokia dela frogatu du euskal kanpo harremanen elementu operatibo eta egiturazailerik gisa X. legegintzaldian. Hala ere, XI. legegintzaldirako (2016-2020) gobernu programa berriaren eraginez 2017an EBC eguneratu izanak eta mundu osoan gertatu diren aldaketa geopolitiko eta ekonomiko sakon-sakonek **2018-2020 aldirako kanpo harremanetarako ildo estrategiko berriak ezartzera** behartu dute, kontuan hartuta, gainera, 2014ko KHPn ezarritako adierazleak ez zeudela indarrean, 2014-2016 denboraldian betetzeko jomugak ezartzen baitzituten.

Horrexegatik egin da 2017an **parte hartzeko hausnarketa prozesu** bat, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren kanpo jarduerari eragiten dioten barne eta kanpo faktoreei buruz. Prozesu honek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2017ko baliabide eta ahaleginen zati handiena hartu du, eta, horren ondorioz, 2018an, **Kanpo Harremanetarako Plan (2018-2020)** berria aurkeztu zen, **2020ra begira EBC eguneratzeaz** gain.

2018-2020 aldirako KHP berria pentsatzearekin batera, 2017an Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bere plangintza, babes eta koordinazio lanak egin ditu Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanei dagokienez, esparrutzat EBC eta 2014-2016 aldirako KHPn ezarritakoa hartuz.



Ilido horretan, txosten honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2017an burututako jarduera hauen analisi bat egiten da, bloke bitan:

- 1. Jardueren jarraipena helburu estrategiko bakoitzeko**
- 2. Ondorio nagusiak**

Analisirako informazio iturri nagusitzat Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak emandako jarduera zerrendak erabili dira.

## 2 KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN 2017KO JARDUEREN JARRAIPENA

Atal honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2014ko KHPn planteatutako helburu estrategikoen arabera garatutako jardueren analisia aurkezten du.

Helburu bakoitzaren barruan 2017an egindako jardueren azterketaren bitartez **ekintza ildo bakoitzaren pisua eta nagusitasuna** aztertuko dira. Analisiak EBCn zehaztutako nazioartekotzeko sektoreetarantz jarduera horiek duten orientazioa ere jasoko du, eta helburu bakoitzaren barruan **jarduerarik esanguratsuenen xehetasuna** ere bai.

Analisira begira, kontuan hartu behar da 2014ko KHPk jomugak jartzen zituela jarduera bakoitzerako, 2014-2016 aldian betetzeko. Horregatik, 2017an ere 2014ko KHPk planteatutako eskema jarraitu da helburuei eta ekintza ildoei dagokienez, planteatutako jomugak betetzeko denborazko epea 2016an jarrita bazegoen ere.

### 2.1 1. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Euskadi munduan proiektatzea»


Batez ere EBCren lehen sektorearen ildotik, KHPren lehen helburua **Euskadi kanpoan eragile global eta bikaintasun erreferentzia moduan proiektatzea** da.

Helburu hori lortzeko, planak hiru ekintza ildo ditu:

- **1.1 Basque Country marka finkatzea**
- **1.2 Nazioartekotzeko ingurune egokia sortzea**
- **1.3 Euskadiren nazioarteko posizioa handitzea**

Ondoko irudian erakusten denez, 2017an helburu honen inguruan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak izan duen jarduera 1.1 ildoa ardaztu da, ekintzen % 79 Basque Country marka finkatzeko izan baitira, eta, horren hurrengo, Euskadiren nazioarteko posizioa handitzera zuzendutako ekintzak (1.3 ildoa, % 14) eta nazioartekotzeko ingurune bat sortzera bideratutako ekintzak (1.2 ildoa, % 7) izan dira kopurutsuenak.

1. irudia. KHPren 1. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Xehetasunez, ondoko taulan 2017an KHPn jasotako jarduera bakoitzeko eta ekintza ildo bakoitzeko garatutako proiektu kopurua zerrendatzen da, eta EBCn ezarritako bektoreekiko lotura ere bai.

1. taula. KHPren 1. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017

| EKINTZA ILDOA                                | JARDUERAK                                                                                            | PROIEKTU KOPURUA, 2017 | BEKTOREAK |    |    |    |
|----------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|-----------|----|----|----|
|                                              |                                                                                                      |                        | V1        | V2 | V3 | V4 |
| 1. BASQUE COUNTRY MARKA FINKATZEA            | 1 Basque Country aurkezteko materiala garatzea, eleaniztuna eta euskarri anitzetan                   | 10                     | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                              | 2 Basque Country markaren zabalkundea koordinatzea                                                   | 3                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                              | 3 Interneten komunikazio estrategia bat garatzea                                                     | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                              | 4 Basque Country markaren zabalkunde ekintzak, Euskal Etxeen ordezkariak eta federazioek antolatutak | 9                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                              | 5 Euskal eragileak Basque Country markari atxikitzea                                                 | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
| 2. NAZIOARTEKOTZEKO INGURUNEA SORTZEA        | 1 Herrialde eta eskualde lehenetsiekin Learning Tours antolatzea                                     | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                              | 2 Nazioarteko ospea duten txandakako egoitzako ekitaldiak erakarri eta elkarrekin antolatzea         | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                              | 3 Nazioarteko proiektzioa duen ezagutza eta talentua erakarri eta mantentzeari babesa ematea         | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
| 3. EUSKADIREN NAZIOARTEKO POSIZIOA HANDITZEA | 1 Nazio Batuen sistemako ekitaldi tematikoetan euskal profesionalak parte hartzea sustatzea.         | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                              | 2 Nazioarteko ospea izango duen Basque Country Saria sortzearen bideragarritasuna aztertzea          | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                              | 3 Euskal Expertisea nazioartean sustatzea                                                            | 3                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
| GUZTIRA                                      |                                                                                                      | 28                     |           |    |    |    |

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Lehen ekintza ildoari dagokionez, (**«Basque Country marka finkatzea»**), 2014an herrialde-marka atera zenetik, ikur hori kanpoan bultzatzera eta Euskadiren nazioarteko proiektzio multisektorialerako partaidetza tresna partekatu gisa duen rola indartzera bideratutako jarduerak egiten izan dira. Ildo horretan, 2017an sustapen ekitaldi bat antolatu zuen Euskadiren Madrilgo ordezkariak *Atzerriko Diplomazialarien Elkartearekin (ADE)* elkarlanean, Euskadi Basque Country marka proiektatzeko komunitate diplomatikoaren barruan. Ekitaldira mundu guztiko 50 diplomazialari baino gehiago bertaratu ziren, eta ADEko zuzendaritza batzordekoak ere bai. Gainera, marka Eusko Jaurlaritza bere ordezkaritzen bitartez aurkez dagoen herrialdeetan proiektatu da batez ere: Euskal Etxeekin batera egindako ekitaldietan, esate baterako Txilen *Korrika 2017* ospatu zen Santiagon, eta nazioarteko entzutea duten ekitaldietan, esate baterako *New Yorkeko Maratoian* edo *Bruselako BD Jaialdian*.

Bigarren ekintza ildoari dagokionez (**«Nazioartekotzeko ingurune egoki bat sortzea»**), nabarmentzekoa da Estatu Batuetako politikari eta akademiko talde batek eta Estatu Batuetako enpresa eta ekonomia munduko ordezkari batzuek Euskadin egindako *learning tour* bidaia, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak Estatu Batuetako Euskadiren Ordezkarietarekin batera antolatua. Horrekin batera, talentua erakarri eta mantentzea ere indartu zen, Txileko Hezkuntza Ministerioaren *Txilerako teknikariak* programako jardunaldietan parte hartzea bezalako jarduerekin, euskal etxeetan Lanbide Heziketako laguntzaileak egingo baitituzte teknikariok.

Lehenago aipatu den bezala, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak lehen helburuaren barruan egin duen jarduera gehiena hirugarren ekintza ildora orientatuta egon da (**«Euskadiren nazioarteko posizioa handitzea»**), bereziki euskal *expertisea* kanpoan sustatzera bideratutako ekintzen bidez, eta, maila apalagoan, euskal adituek Nazio Batuen sistemaren ekitaldietan adituek parte hartzea sustatuz.

Euskal *expertisea* kanpoan bultzatzeari dagokionez, bereziki nabarmentzekoa da Euskadi Basque Country 2030 Agenda egiten, eragileak atxikitzen eta nazioartean zabaltzen nazioarteko antolakundeekin eta sareekin aliantzak sendotzeko egin den lan guztia; izan ere, Agenda tresna egokia baita Euskadi erreferentziako lurralde bihurtzeko Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuak bere politika publikoetan, herri erakundeetan eta gizartean integratzen. Ildo horretan, Miguel Ángel Moratinos REDS (Agenda 2030 ezartzeko NBERen SDSN sarearen Espainiako adarra) sarearen presidenteak Euskadira egin zuen bisitaren antolaketa; bilera bat izan zuen Lehendakariarekin eta Hezkuntza eta Ingurumen sailburuekin. Horrekin batera, 2017an gai honetako hitzaldietan hartu da parte, esate baterako *Senatuan* aurkeztu zena talde

parlamentarioen arteko topaketa batean; *Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean*; *ODS Indizearen Txostenaren* 2. edizioan (REDS eta Telefónica Fundazioa); konferentzietan: *Panel de Alto Nivel: España y la Implementación de la Agenda 2030* eta *2030 Garapen Iraunkorreko Euskal Agenda baterantz*, UNICEFek antolatutak; edo Valentziako Generalitateak, Innobasquek edo Euskal Herriko UNESCO Sareak antolatutako topaketetan. ODSekin erlazionatutako ekitaldiak ere antolatu dira eta/edo antolatzen lagundu da, esate baterako Emakunderekin batera antolatutako barne saioa, eta *Agenda 2030, Iraunkortasunaren aldeko aliantzak* jardunaldia Aurenekin batera. Era berean, prestakuntza eta komunikazio ekintzetan lagundu da eta hartu da parte, esate baterako UNESCO Etxearen elkarlanarekin HAE Eren *2030 Agendari buruzko hasiera ikastaroa* martxan jartzea, edo Euskadik *2030 Agendarekin duen konpromisoari buruzko komunikazio kanpaina* Nazio Batuen eguna dela eta. Bestalde, Hezkuntza, Ingurumen eta Kultura Sailak gidatzen duten *Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategiaren Ekintza eta Jarduera Planean* ekarpenak egin dira; eta 2030 Agenda eta ODS Euskadin aplikatzearen aldeko lan hori guztia gainera Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordean aurkeztu da.

Horren osagarri, ordezkaritza sarearen bitartez, euskal *expertisea* Euskaditik kanpo sustatzeko ekinbideei etengabeko laguntza eman zaie, euskal herri erakunde eta antolakundeetarako lan misio eta agendak eginez, hala nola Euskal Ganberek, nekazaritzako elikadura industriak, NER taldea, HABIC edo Mexikoko txotxongiloen Nazioarteko Zentroak, Emakundek edo Basquetourrek Estatu Batuetan; GAIA, ACLIMA edo Kolonbiako Energia klusterrak, edo ekinbideari, Basque Country Lizitzio Plataformak eta Argentinan Basquetourrek jaso dituztenak bezalakoak.

Euskal *expertisea* sustatzearekin erlazionatuta dago *Madrilgo Digital Business World Congress* biltzarraren barruan *Business by Sweden* atalean enpresa inkubagailuen euskal eredua aurkeztea ere; *offshore* energien munduko balio katean posizioa hartzen laguntzea *Wind Europe* azokan parte hartuz (Amsterdam); lankidetzaren barruan egindako lana, Euskadiko GKEen koordinakundeari Europan proiektatzen lagunduz eta Europako Batzordeko Lankidetzazuzendariarekin izandako goi mailako bilerei bidea zabalduz; eta Enplegurako eta Gizarte Gaietarako sailburuari emandako laguntza IHEPS institutuko (Frantzia) ordezkaritza baten aurrean emandako konferentzian Madril.

Azkenik, Nazio Batuen sistemako ekitaldietan euskal adituek parte hartzea sustatzeari dagokionez, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak parte hartu zuen Cabo Verden egindako *Garapen Ekonomiko Lokalaren IV. Foroan*, NBGPren babespean eta FAMSI, HGLB, ORU/FOGAR

eta LANEk elkarrekin antolatuta, eta euskal ordezkariak zenbait lantaldetan eta ekitaldiaren itxierako saioan esku hartzeari lagundu zion.

## **2.2 2. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak kanpoan sustatuz»**


KHPren bigarren helburua **euskal eragileak nazioartekotzen kanpoan lagunduz Euskadiren interes multisektorialak aldezte**a da, bereziki Euskadik erreferentziako posizioa duen sektoreetan edo lehenesten diren edo interesgarritzat jotzen direnetan.

Helburu hau lortzeko, bigarren helburua lau ekintza ildotan egituratzen da:

- **2.1 Euskadirako estrategikoak diren eskualdeekin harremanak garatzea**
- **2.2 Euskadiren nazioarteko erakundeekiko harremanak areagotzea**
- **2.3 Euskadiren kanpoko harreman instituzionalak areagotzea**
- **2.4 Euskal eragileak sare tematikoetan parte hartzea bultzatzea**

2017an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bigarren helburu honetan egindako jarduera atzerriko harreman instituzionalak areagotzen zentratu zen, jarduera guztien % 69 jarduera ildo honetan (2.3) ardaztu baitziren. Gainerako jarduerak Euskadik nazioarteko erakundeekin dituen harremanak areagotzera (2.2 ildo, % 15), euskal interesetarako estrategikoak diren eskualdeekiko harremanak garatzera (2.1 ildo, % 8), eta euskal eragileek sare tematikoetan parte hartzea sustatzera (2.4 ildo, % 8) bideratu ziren, ondorengo irudian ikus daitekeenez:

**2. irudia.** KHPren 2. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017



- 2.1 DESARROLLAR RELACIONES CON REGIONES ESTRATÉGICAS PARA EUSKADI
- 2.2 INTENSIFICAR LAS RELACIONES DE EUSKADI CON LOS ORGANISMOS INTERNACIONALES
- 2.3 INCREMENTAR LAS RELACIONES INSTITUCIONALES DE EUSKADI EN EL EXTERIOR
- 2.4 FOMENTAR LA PARTICIPACIÓN DE LOS AGENTES VASCOS EN REDES TEMÁTICAS

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Zehatzago adierazita, ondorengo taulan KHPren bigarren helburuaren barruan aurreikusitako jarduera bakoitzari dagokion proiektu kopurua ematen da. Bestalde, eta bigarren helburu hau EBCn ezartzen den bigarren bektorearekin bereziki lerrokatzen bada ere, bere jarduerak gainerako bektoreen eraginpean ere badaude:

**2. taula.** KHPren 2. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017

| EKINTZA ILDOA                                                        | JARDUERAK                                                                                                                                     | PROIEKTU KOPURUA, 2017 | BEKTOREAK |    |    |    |
|----------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|-----------|----|----|----|
|                                                                      |                                                                                                                                               |                        | V1        | V2 | V3 | V4 |
| 1. EUSKADIRAKO ESTRATEGIKOAK DIREN ESKUALDEEIKIN HARREMANAK GARATZEA | 1 Eskualde estrategikoekin alde biko elkarlan akordioak ezarri eta martxan jartzea                                                            | 4                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                      | 2 Euskadirako interes estrategikokoak diren eskualde sareetan parte hartzea                                                                   | 2                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                      | 3 Euskadirako interesgarriak diren eskualdeetatik/eskualdeetara noranzko biko bisita instituzionalak antolatzea                               | 2                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
| 2. EUSKADIREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEEIKIN HARREMANAK AREAGOTZEA        | 1 Euskadi erreferentzia den eredu eta politika publikoak eskualdatzeko nazioarteko erakundeekin elkarlan akordioak ezarri eta martxan jartzea | 3                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                      | 2 Alderantzizko misioak antolatzea                                                                                                            | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                      | 3 Euskal eragileen partaidetza indartuz nazioarteko erakundeekin elkarriketa foroak egin eta/edo horietan parte hartzea                       | 10                     | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                      | 4 Alde anitzeko erakundeetara ohitzeko bisitak egiteko bidea zabaltzea                                                                        | 2                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                      | 5 Nazioarteko erakundeen ordezkaritza antenak atzitzea                                                                                        | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |

|                                                                 |   |                                                                                                              |     |   |   |   |   |
|-----------------------------------------------------------------|---|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|---|---|---|---|
| 3. EUSKADIREN KANPOKO HARREMAN INSTITUZIONALAK AREAGOTZEA       | 1 | Herrialde lehenetsi eta interesgarrietan ordezkartzen eta herri erakundeen arteko harreman egonkorak egitea  | 10  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                 | 2 | Euskadi barruan eta kanpoan ordezkartza diplomatikoeikiko harremanak areagotzea                              | 13  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                 | 3 | Euskaditik/Euskadira noranzko biko bisita instituzionalak antolatzea                                         | 46  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| 4. EUSKAL ERAGILEAK SARE TEMATIKOETAN PARTE HARTZERA BULTZATZEA | 1 | Euskadiko eragileentzat interesgarriak diren eremu lehenetsietan sare tematiko garrantzitsuak identifikatzea | 0   | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                 | 2 | Identifikatutako sareetan eragileak integratzeko prozesuan herri erakundeen laguntza ematea                  | 2   | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                 | 3 | Sare tematiko estrategikoetan Euskadiren lidergoa bultzatzea                                                 | 6   | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| GUZTIRA                                                         |   |                                                                                                              | 100 |   |   |   |   |

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Lehen ekintza ildoari dagokionez (**«Euskadirako estrategikoak diren eskualdeekin harremanak garatzea»**), Flandria, Bavaria, Gales eta Quebecoko gobernuarekin alde biko harremanak areagotu izana nabarmentzen da. Flandriaren kasuan, Flandriako Turismo ministroaren eta Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuaren artean turismo arloko MoU bat izenpetzeko bidea zabaldu zen, klima aldaketaren, bake proiektuen eta kultura eta sorkuntza industrietan, besteak beste, aurreikusitako elkarlana berriro hasteaz gain. Bavariari dagokionez, bidea egin zen polizien lankidetzaren areagotzeko Adierazpen Bateratu bat izenpetzeko, euskal Segurtasun sailburuak eta Bavariako Barne Arazo, Eraikuntza eta Garraio ministroak, Industria 4.0 arloko harremanak areagotzeaz gain. Galesekin, bestalde, harremanak bultzatu dira eta zenbait arlotako interesguneak hauteman dira: zergak, azpiegiturak, hezkuntza, hizkuntza politika, osasuna eta ingurumena. Azkenik, eta eskualde estrategikoeikiko jarduerak direla eta, bereziki nabarmendu zen 2017an Quebecen egindako lana, Kanadako probintzia honekin Urkullu Lehendakariak MoU bata izenpetu baitzuen urritik azarora bitartean Kanadara egin zuen bidaiaz baliatuz. Bidaia honetan Quebec, Montreal eta Ottawa hirietatik igaro zen, eta gainera MoU bat izenpetu zen *Parks Canada*arekin ondare historiko eta kultural komuna indartzeko, eta goi mailako topaketak egin ziren esparru askotan (soziala, ekonomikoa, akademikoa, kulturala eta abar), Batzar Nazionalaren harrera bat, Kanadaren eta Frankofoniaren Harremanetarako ministroarekin eta Kanpo Harremanetarako Parlamentu idazkariarekin solasaldiak, eta Lehendakariak konferentziak eman zituen Lavaleko Unibertsitatean eta *Conseil des relations internationales de Montréal* (CORIM) kontseiluan, beste ekitaldi batzuen artean.

Bigarren helburuaren barruko bigarren ekintza ildo (**«Euskadiren nazioarteko erakundeekiko harremanak areagotzea»**) ikuspegi multisektorial batetik nazioarteko antolakundeekin elkarriketa foroak egitera eta horietan parte hartzera bideratuta egon da. Ildo horretan, UNESCOrekin MoU egiteko Eusko Jaurlaritzaren lantaldea sortu da; gainera, antolakunde honekin kontaktuak eduki dira diplomazia kulturalako EBren strategiaren inguruan *Europa Transit* proiektua errepikatzeke. OMerekin eta bere *Global Campaign to Combat Ageism*

kanpainarekin ere elkarlanean aritu gara, eta, besteak beste, «Europako Elkartasun Gorputza» Europako Foroarekin elkarriketa foroan, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren (IEPK) Batzar Orokorrean, Eskualdeen Batzordearen «*Ocean meets Regions*» foroan, Bioekonomia Zirkularraren Europako foroan edo Parisen *Mode Basque* jardunaldietan hartu dugu parte, beteak beste. Beste alde batetik, eta nazioarteko erakundeekin elkarlan akordioak martxan jartzeari dagokionez, SEGIB Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin elkarlana indartzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak OEI Estatu Iberoamerikarren Antolakundearekin MoU bat izenpetu izana nabarmentzen da, hain zuzen, antolakunde honen idazkaria nagusiak eta Lehendakariak sinatu zuten hezkuntza, kultura, zientzia eta berrikuntza gaietan elkarlana indartzeko asmoz.

Lehenago aipatu den bezala, KHPn ezarritako bigarren helburuaren barruan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egin duen jarduera haren hirugarren ekintza ildorantz («**Euskadiren kanpoko harreman instituzionalak areagotzea**») bideratuta egon da, batik bat Euskaditik/Euskadira noranzko biko bisita instituzionalak antolatuz.

Bisita instituzionalen arten Euskaditik bereziki nabarmentzen dira Lehendakariak Kolonbiara eta Kanadara egin zituenak, eta Europako goi agintariekin izan dituen bilerak ere bai.

Kolonbiaren kasuan, bisita instituzionalak goi mailako topaketa instituzionalak ere izan zituen, hala nola Kultura ministroa, Bakerako Goi Mandataria, edo Lehendakariordea, eta gainera MoU bat izenpetu zen lehiakortasun, industria, berrikuntza eta ingurumen arloan Cundinamarca eskualdearekin. Ildo horretan, 2017an Eusko Jaurlaritzaren eta Kolonbiako Hezkuntza Ministerioaren artean giza eskubideen, elkarbizitzaren, bakearen eta lankidetzaren hezkuntzaren esparruan esperientziak eta baliabideak trukatzeko eta elkarrekiko jarduerak eta proiektuak egiteko MoU bat izenpetzeko negoziazioa egin zen eta hartarako oinarriak jarri ziren.

Kanadari dagokionez, arlo askotan (ekonomikoa, soziala, instituzionala, akademikoa, kulturala eta abar) lan topaketak mantentzeaz gain, bereziki garrantzitsua izan zen Quebec probintziarekin MoU bata izenpetu izana, Euskadiren Bazkide Estrategikoen Sarean sartu baita.

Bestalde, 2017an bidea egin zen Lehendakariak Europar Batasuneko goi agintariekin bilerak izateko, besteak beste, Jean-Claude Juncker Batzordeko presidentearekin, Pierre Moscovici Ekonomia, Finantza eta Zerga Gaietarako komisarioarekin, edo Guy Verhofstadt Brexitaren gaineko negoziazioetarako Europako Parlamentuaren ordezkariarekin. Lehendakaria Italiara eta Vatikanora ere joan zen iheslarien krisialdia zela eta; eta Auschwitzera Bizkaiko Batzar Nagusiekin batera, bidaia baliatuz Gernikako zuhaitzaren kimu bat landatu zen eta bilera instituzionalak egin ziren.

Bisita instituzionalak jasotzeak ere hartu zuen ekintza ildo honetako jarduerarik asko. Ildo horretan, Euskadira bisita instituzionala antolatu zitzairen Industria Idazkaritzari, Ekoizpen Eraldaketaren Idazkaritzari, INTI eta ADMIRARI (Argentina), euskal industria birmoldaketa eredua ezagutzeko; PROCOMER-Costa Ricaren Espainia Estatuko zuzendari nagusiari, Macachíneko (Argentina) intendenteari; latinoamerikar enpresen ordezkari MercaBilbaora eta Bilboko Portura; Lujáneko (Argentina) Ospitaleko zuzendari administratiboari; eta Komore uharteetako ordezkari bati. Gainera, Japoniako Gobernuko Ekonomia, Merkataritza eta Industria Ministerioko zuzendari ondokoaren bisita lagundu zen; eta NBEren Emakumeen atalaren Europarako eta Erdialdeko Asiarako eskualde zuzendariordearena, besteak beste. Europara etorrita, Euskadirako garrantzi eta interes multisektorialeko bisitak jaso ziren, esate baterako Markku Markkula Eskualdeen Batzordeko presidentearena, Europako Batzordearen Enplegu Zuzendaritza Nagusiko arduradunen azterketa misio batena, Finlandiako agintariena, eta Errumaniako Atzerri Inbertsioetarako ministroarena.

Horren osagarri, ahalegin gehiago egiten jarraitu da Euskadi barruko eta kanpoko ordezkari diplomatikoei harremanak estutzen, gorputz diplomatikoaren bisitei bideak zabalduz (Costa Rica, Peru, Nikaragua, Ukraina, India, Filipinak, Turkia, Herbehereak, Zipre, Italia, Erresuma Batua, Frantzia eta abar), eta atzerriko diplomazialariei Euskadin agendak antolatuz, esate baterako Costa Rica, Txile edo Herbehereak.

Madrilgo Ordezkaritzak, bere aldetik, zenbait topagune eta lan bilera egin ditu enbaxadekin harreman egonkorrak izateko eta Jaurlaritzak edo euskal eragileek gidatzen dituzten plan eta ekinbideen berri emateko, adibidez Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Plana, BIND 4.0 ekinbidea, Industria 4.0 azeleratzeko programa, 3E2030 Euskal Estrategia Energetikoa, edo Tecnalia aitzindari duen ELAN NETWORK ekinbidea.

Halaber, eta horrekin batera, atzerriko ordezkariak oso rol aktiboa izan dute herri erakundeekin eta antolakundeekin harremanak estutzen, egon dauden herrialdeetan.

Txileren kasuan, nabarmentzekoak dira O'Higgins eskualdeko ordezkariarekin egindako jira teknikoa, Hezkuntza Ministerioaren eta Nekazaritza Ministerioaren jardunaldietan eta prestakuntza programetan parte hartu izana, gizarte ekintza arloan Bilboko Udalaren eta Peñalolén Udalerraren elkarlanerako koordinazioa, eta Txileko Nekazaritza Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak izenpetutako nekazaritza arloko eta familia nekazaritzako MoU agiriaren esparruan Nekazaritza Ministerioak egin zuen bisita teknikoari emandako laguntza.



Kolonbian, bere aldetik, Lehendakariaren eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuaren, Ingurumen sailburuordearen eta Ur Agentziaren zuzendari nagusiaren bisitari esker tokiko herri erakundeekin harremanak sendotzeaz gain, lan gosariak antolatu dira han ezarritako euskal enpresekin eta toki erakundeekin, bai publiko bai pribatuekin, eta nabarmentzekoak dira Informazioaren Teknologien ministroordearekin, Invest in Bogotá-rekin eta Cundinamarcako Gobernazioarekin izandakoak.

Mercosurren, Euskadiren interes multisektorialen alde egiteko emandako laguntzari esker (Nazioarteko Turismo Azoka, Iberoamerikar Gastronomia Azoka, Basque Country Lizitazio Plataforma), harremanak estutu dira Argentinako ministerioekin eta antolakunde publikoekin (Barne Arazoetako, Herri Lanetako eta Etxebizitzako Ministerioa; Energia Ministerioa; Garraioa Ministerioa; Turismo Ministerioa; Azpiegitura eta Landa Zerbitzuen Ministerioa; Ekonomia Ministerioa; Ingurumen eta Garapen Sostengagarriaren Idazkaritza; Ogasun Idazkaritza eta abar), eta gunean diharduten alde anitzeko antolakundeekin (Munduko Banketxea, Garapeneko Banketxe Interamerikarra). Gainera, agendak antolatu dira Turismo eta Merkataritza sailburuordearen, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuaren eta Basquetourreko zuzendariaren bisitarako.

Mexikon, nabarmentzekoak dira maila federalean CONAVIM Emakumeen aurkako Indarkeria Saihestu eta Deuseztatzeko Batzorde Nazionalarekin eduki diren kontaktuak, EMAKUNDEekin elkarlan hitzarmena izenpetu zela eta, bai eta IMSS Mexikoko Gizarte Aseguruaren Institutuarekin ere, Euskal Osasun Sailarekin elkarlan hitzarmena izenpetu zela eta. Mexikoko estatuei dagokionez, nabarmentzekoak dira Tlaxcalako Osasun Idazkaritzarekin, San Luis de Potosíko Garapen sostengagarriko Idazkaritzarekin eta FLACMA Hiri, Udalerri eta Elkarteen Latinoamerikar Federazioarekin izandako kontaktuak.

Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariari dagokionez, nabarmentzekoak dira *Learning Tour* 2017 gauzatzeko egindako lanak, eta, gainera, George Washington Unibertsitatean euskal gobernantza ereduari buruz egindako aurkezpena, eta Harvardeko Unibertsitateko Gobernu Eskolan azterketa kasu bat sortzeko eta *World Affairs Councils of America*ko presidentetarako *Learning Tour* bat antolatzeko hasitako prestalanak.

Azkenik, eta helburu honen barruan, bai euskal eragileen bai herri erakundeen partaidetza bultzatu da sare tematikoetan, bereziki Europako EALALL, ERRIN, Vanguard Initiative, NPLD, RICC eta EUNIC sareetan, Euskadik horien gobernantza organoetan aktiboki hartzen baitu parte. Era berean, azpimarratzekoa da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia ORU-FOGAR sarearen

barruan egin duen lana, bai bere Buro Exekutiboan parte hartzen Rabaten (Maroko), bai bere Batzar Orokorrean, 2017an Gasteizen Eskualdeen Munduko Foroarekin batera. Ekitaldi honetan, gainera, ORU-FOGAR sarearen hamargarren urteurrena ospatzen zen, Lehendakariak inauguratu zuen, eta bertan elkartu ziren Europako, Asiako, Afrikako eta Amerikako berrogeita hamarren bat gobernu, estatu gobernuak ez zirenak. Batzarrak iraun zuen bitartean ORU/FOGAR sarearen eta NBGPren deialdiko Jokaera Onen II. Lehiaketako sariak eman ziren, eta hiru esperientzia hautatu zituzten, Ingurumen Sailarena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarena eta Osasun Sailarena.


### **2.3 3. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Europaren eraikuntzan partaide eta erantzunkide izatea»**

Kanpo Harremanetarako Planaren hirugarren helburua martxan jarritz lortu nahi da Euskadik laguntzea **Europa integratuago bat eraikitzen, bere ahots propioa edukiz Europaren proiektuan** eta zuzenean parte hartuz euskal autogobernuari eragiten dioten gaiak eztabaidatzen edo erabakitzen diren Erkidegoko estamentu eta organoetan. Helburu hau lortzeko, helburu hau lau ekintza ildotan egituratzen da:

- **3.1 Euskadiren lidergoa sustatzea European dituen interesak aldezteko**
- **3.2 Mugaz gaindiko lankidetza indartzea**
- **3.3 Instituzioetan euskal eragileen partaidetza eta presentzia areagotzea**
- **3.4 Erkidegoaren zuzenbidea aplikatzen dela jagotea**

2017an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak helburu honetara bideratu duen jarduera Euskadiren lidergoa sustatzera bideratuta egon da bere interesak aldezteko European (3.1), eta, hurrengo, euskal eragileen partaidetza eta presentzia EBko herri erakundeetan, proiektuetan eta ekinbideetan areagotzeko jarduerak izan dira (3.3 ildo, % 27). Mugaz gaindiko lankidetza indartzera orientaturiko jarduerak (3.2) eta Erkidegoaren zuzenbidea aplikatzen dela jagoteko egin direnak (3.4), hurrenez hurren, jarduera guztiaren % 22 eta % 13 izan dira.

3. irudia. KHPren 3. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017



- 3.1. FOMENTAR EL LIDERAZGO DE EUSKADI PARA DEFENDER SUS INTERESES EN EUROPA
- 3.2. REFORZAR LA COOPERACIÓN TRANSFRONTERIZA
- 3.3. INCREMENTAR LA PARTICIPACIÓN Y PRESENCIA DE AGENTES VASCOS EN LAS INSTITUCIONES, PROYECTOS E INICIATIVAS DE LA UE
- 3.4. VELAR POR LA APLICACIÓN DEL DERECHO COMUNITARIO

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Ondoko taulan, aurreikusitako jarduera guztiak eta betetako proiektu kopurua agertzen dira xehetasunez, bai eta EBCn ezarritako sektoreekin duten lotura ere:

3. taula. KHPren 3. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017

| EKINTZA ILDOA                                                     | JARDUERAK                                                                                                                              | PROIEKTU KOPURUA, 2017 | BEKTOREAK |    |    |    |
|-------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|-----------|----|----|----|
|                                                                   |                                                                                                                                        |                        | V1        | V2 | V3 | V4 |
| 1. EUSKADIREN LIDERGOA SUSTATZEA EUROPA DITUEN INTERESA ALDEZTEKO | 1 Lobby politiko-instituzionalaren ekintzei bultzada ematea                                                                            | 7                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                                                   | 2 Euskadik Europako erakunde eta organoetan parte hartzeari indarra ematea                                                             | 5                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                                                   | 3 Europako gaien eta kanpo harremanen arloko Estatuko Administrazio Orokorren eta Euskadiren arteko alde biko Batzordea berraktibatzea | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
|                                                                   | 4 Euskadira arlo lehenetsietan Europar Batasunean interes komunak aldezteko lankidetzak ezartzea                                       | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  |    |
| 2. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA INDARTZEA                            | 1 Akitaniarekiko harremanak sendotzea eta Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa lantzea                                                   | 0                      |           | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                   | 2 Mugaz gaindiko lankidetzak garatzen duten Frantziako Errepublikako herri erakundeekin harremanak indartzea                           | 3                      |           | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                   | 3 Mugaz gaindiko eta eskualdearteko lankidetzarako foro edo elkarteetan parte hartzea                                                  | 5                      |           | ✓  | ✓  | ✓  |

|                                                                                                                                    |   |                                                                                                                                           |    |   |   |   |   |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|---|---|---|---|
| 3. EB-KO<br>INSTITUZIOETAN,<br>PROIEKTUETAN ETA<br>EKINBIDEETAN EUSKAL<br>ERAGILEEN<br>PARTAIDETZA ETA<br>PRESENTZIA<br>AREAGOTZEA | 1 | EBrekin erlazionatutako edukien zabalkunde zerbitzuen plataforma birtuala eguneratu eta indartzea                                         | 0  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                                                                                    | 2 | Europako politiketan aditu direnekin informazio saioak antolatzea                                                                         | 4  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                                                                                    | 3 | Europaren eraikuntzan izan diren aurrerapenez eta horiek Euskadin duten eraginez sentibilizatzeko eta eztabaidatzeko kanpainak bultzatzea | 0  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                                                                                    | 4 | Eusko Jaurlaritzaren Sailekin koordinatu eta elkarlanean aritzea Europako politika publiko interesgarriari jarraipena emateko             | 4  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
|                                                                                                                                    | 5 | Euskadin jokaera onak zabaltzeko programetan eta jardunaldietan parte hartzea                                                             | 2  | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| 4. ERKIDEGOAREN<br>ZUZENBIDEA<br>APLIKATZEN DELA<br>JAGOTEA                                                                        | 1 | Erkidegoaren zuzenbidetik eratortzen diren eginbeharrak betetzerakoan Jaurlaritzaren ekintza koordinatu eta aholku ematea                 | 0  |   |   | ✓ |   |
|                                                                                                                                    | 2 | Estatuaren Administrazio Orokorren solaskide izatea                                                                                       | 5  |   |   | ✓ |   |
|                                                                                                                                    | 3 | Subsidiarotasun printzipioa benetan aplikatzen elkarlanean aritzea                                                                        | 0  |   |   | ✓ |   |
| GUZTIRA                                                                                                                            |   |                                                                                                                                           | 37 |   |   |   |   |

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Helburu honetan aurreikusitako lehen ekintza ildoaren barruan (**«Euskadiren lidergoa sustatzea Europar dituen interesak aldezteko»**), bereziki nabarmendu ziren Euskadik Europako erakunde eta organoetan parte hartzea indartzera bideratutako jarduerak. Horrela, goi mailako bilerak bideratu ziren, hala nola Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuarena Batzordeko presidenteordearekin; garrantzizko foroetan esku hartzeak bultzatu ziren, hala nola Kulturako eta Hizkuntza Politikako sailburuarena Diplomazia Kulturalari eta Eskualdeen Rolari buruzko Europako Foroan edo Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena Bruselako *European University Business Forum*en; eta lan agendak prestatu ziren sail, herri erakunde eta euskal eragileentzat Europako erakundeekin: Ingurumen eta Etxebizitza sailburua, Justizia eta Lan sailburua, Etxepare Institutuaren zuzendaria, Enplegu sailburuordea, Gaztedi zuzendaria, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordea eta abar. Horrekin batera, euskal eragileen partaidetza ere bultzatu zen Europako sare tematikoetan, esate baterako, EARLALL, ERRIN, NORD, RICC eta EUNIC; eta Euskadik gidatu zituen aurkako inguruneetako energia aplikazioetarako *S3Platform* plataforma bi. Ikuspegi honetatik bereziki azpimarragarria gertatzen da *Vanguard Initiative* elkartearen eratu izana, lau kide fundatzailerekin (Flandria, Emilia-Romagna, Tampere eta Euskadi), eta eskualdearteko lankidetzaren eta inbertsio bateratuen bitartez garapen ekonomikoari laguntzeko eta enplegua sustatzeko konpromisoarekin.

Horrez gain, lobby ekintzak ere bultzatu ziren komunikazio ekitaldien bidez, Euskadiren interesak Europako testuinguruan aurrera eramate aldera; adibidez, IEPK-k Batzordeari bidalitako eskutitza babestea, edo kohesio politikei buruzko Euskadiren posizio dokumentua eguneratzea eta Europaren Etorkizunari buruzko dokumentuan eta gai honi buruzko euskal



ikuspegian parte hartzea. Era berean, Estatuaren Administrazio Orokorrarekin solaskidetzaz sustatzen jarraitu zen, Europar Batasunarekin Erlazionatutako Gaien Konferentziaren Osoko Bilkurak edo Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Europako Gaietarako Estatu Idazkaritzak izan zuten bilera eginez.

Azkenik, eta lehen ekintza ildo honi dagokionez, Brexitaren Jarraipen Batzordea ezarri zen, eragin handiena zuten gobernu sailen, Euskadik erakunde publikoak eta eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzearekin, kontaktuak mantenduz Estatuarekin, Londresko Espainiaren enbaxadarekin, Londresko Euskal Etxearekin eta Lorden Ganberarekin, eta gaiari buruzko foroetara joanez Helsinkin eta Cardiffen.

Bigarren ekintza ildoari dagokionez (**«Mugaz gaindiko lankidetzaz indartzea»**), jarduera Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualde berrian zentratu zen, LLET berria indarrean sartu baitzen eta kultura, kirol, gaztedi, euroeskualdeko hiritartasun eta ekonomia eta lehiakortasun arloetako eskualdearteko proiektuen lehen eta bigarren deialdiak egin baitziren.

Frantziako Errepublikako herri erakundeekin harremanak sendotzearen esparruan, nabarmentzekoa da Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoaren eraketara eta lehendakari aukeraketara joan izana, Lehendakaria kargudun berriarekin elkartu zela, eta Hirigune Elkargoak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDELe lantalde bat eratu zutela. Halaber, Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoaren Batzar Orokorrera joan zen, estatutuak aldatzeko eta indarrean dagoen hitzarmena berritzeko.

Mugaz gaindiko lankidetzaren ikuspegitik, eskualdearteko elkarlana sustatzeko foroetan eta elkarteetan parte hartzearen arloan jarduera bizia eraman da aurrera, adibidez IEPKaren Arku Atlantikoko Batzordean eta Europako Muga Eskualdeen Elkartean (EMEE) eta Pirinioetako Lan Komunitatearen batzorde betearazleetan parte hartzea. Era berean, Euskadi CREADIS3 proiektua gidatu zuen, kultura eta sorkuntza industrietan RIS3 ezartzearen eremuan esperientziak trukatzeko, bilera asko egin ziren, eta bai Euskadin bai Bruselan zabalkunde foroetan hartu zen parte.

Hirugarren jarduera ildoaren barruko jardura (**«EBko instituzioetan, proiektuetan eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza eta presentzia areagotzea»**), Europako politikei buruzko informazio saioak eta zabalkunde ekitaldiak antolatuz, gobernu sailekin koordinatuta eta elkarlanean Erkidegoko politiken jarraipena egitera eta Europako instituzio eta antolakundearen dokumentuetan euskal jokaera onen zabalkundea egitera orientatuta egon zen.



Ildo horretan, 2017an sustapen ekitaldiak antolatu ziren, adibidez Europaren finantzaketa jasotzearen zabalkunde jardunaldia Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, *Pioneer Regions* ekinbidearen sustapena eta zabalkundea, European University Business Forum eta Europako Batzordeak eta Eusko Jurlaritzak Bilbon Kirolaren Europako Astea dela-eta elkarrekin antolatutako konferentzia.

Horren osagarri, bereziki azpimarratzekoak dira euskal gizartea Europako proiektuaren partaide egitera bideratutako jarduerak, boladan dauden eta EBren etorkizunerako garrantzitsuak diren Europako gaiei buruzko herritarren hiru elkarrizketa antolatuz (*word coffees*) Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Mintegi horiek herritarrak eta erakundeak inplikatu zituzten, enpresaren, unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanez, maila anitzeko gobernantzaz, eta gazteen enpleguaz izan ziren, eta Eskualde Batzordearekin, Foru Aldundiarekin eta beste erakunde laguntzaile batzuekin batera antolatu ziren.

Beste sail batzuekin elkarlanean Europako politiken jarraipena egiteaz gain, iheslarien krisiari Erkidegoak eman beharreko erantzunari buruzkoa gailendu zen bereziki, eta jarraipen hori Babesa behar zuten pertsonen harrera egokia egiteko Eusko Jurlaritzak martxan jarritako sailarteko eta erakundearteko koordinazio foroetarantz bideratu zen *input* gisa.

Azkenik, eta euskal jokaera onak Europako erakundeen eta antolakundeen dokumentuetan zabaltzeari dagokionez, azpimarratu egin behar da Europako Batzordearen “*Shaping the decentralized cooperation*” dokumentuari egin genion ekarpena, Europaren Etorkizunaz eta migratzaileen integrazioaz IEPKren dokumentuari egin genizkionak, Euskadik hartu zuen posizioa diplomazia kulturalaren Europako estrategian eta PLATFORMA sarearen bidezko lankidetzaren deszentralizaturako lankidetzaren estrategikoaren aurrean.

Beste alde batetik Europaren politika publiko interesgarriari jarraipena emateko Eusko Jurlaritzako sailekin koordinatu eta elkarlanean aritzeari dagokionez, Juncker Planaren jarraipenari buruzko «Hiri lurzoru kutsatuak berreskuratzea» proiektuko dokumentazioaren azterketa fasea programatu da, eta kohesio politikaren etorkizunari buruz Eusko Jurlaritzak duen posizioaren dokumentua landu da Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen (EEI) kudeaketan inplikaturako sail guztiekin koordinatuta.

Azkenik, eta laugarren ekintza ildoaren testuinguruan («**Erkidegoaren zuzenbidea aplikatzen dela jagotea**»), Europako Gaietako Estatuaren Administrazio Orokorrekin solaskidetzaren mantendu da; adibidez, Europako Batzordearekin Erlazionatutako Gaien Konferentzietako Osoko Bilkuretara joatea edo Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Jorge Toledo

Europako Gaietako Estatu Idazkariarekin mantendutako bilera, edo Europaren etorkizun instituzionalaz hitz egiteko, dela Brexitaz dela Göteborgeko Gailurraz.


#### **2.4 4. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Kanpoko euskal gizataldearekin Euskadiren harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea»**

KHPren laugarren helburua **Atzerriko euskal komunitatearekin harremanak jarraitu eta mantentzea** da, ekintza instituzionaleko lau urteko planean eta Kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako 8/1994 Legean markatutako helburuen ildoan. Horretarako, helburu hau lau ekintza ildotan egituratzen da:

- **4.1 Gaur egun kanpoko euskal gizataldea osatzen duten taldeak konektatzea**
- **4.2 Euskal emigrazio eta diasporarekin erlazionatutako zertzeladei buruzko ikerketa eta ezagutza sustatzea**
- **4.3 Euskal Etxeen sarearen bitartez kanpoko euskal gizataldea sendotzen laguntzea**
- **4.4 Kanpoko euskal gizataldea osatzen duten pertsonen arreta egitea**

2017 urtean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak helburu honen ildotik egin duen jarduera euskal emigrazio eta diasporarekin erlazionatutako zertzeladei buruzko ikerketa eta ezagutza sustatzera bideratuta egon da (4.2 ildo, jardueraren % 41,67), eta, hurrengo, kanpoko euskal gizataldea sendotzera (4.3 ildo, jardueraren % 33,33), gaur egun kanpoko euskal gizataldea osatzen duten taldeak konektatzera (4.1 ildo, % 16,67), eta kanpoko euskal gizataldea osatzen duten pertsonen arreta egitera (4.4 ildo, jardueraren % 8,33).

4. irudia. KHPren 4. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017



- 4.1 CONECTAR A LOS COLECTIVOS QUE COMPONEN LA ACTUAL COMUNIDAD VASCA EN EL EXTERIOR
- 4.2 FOMENTAR LA INVESTIGACIÓN Y CONOCIMIENTO SOBRE ASPECTOS RELACIONADOS CON LA EMIGRACIÓN Y LA DIÁSPORA VASCA
- 4.3 CONTRIBUIR AL FORTALECIMIENTO DE LA COMUNIDAD VASCA EN EL EXTERIOR A TRAVÉS DE LA RED DE EUSKAL ETXEAK
- 4.4 ATENDER A LAS PERSONAS QUE INTEGRAN LA COMUNIDAD VASCA EN EL EXTERIOR

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Zehatzago, ondoko taulan zerrendatzen dira ekintza ildo bakoitzean aurreikusitako jarduerak eta horietako bakoitzean 2017an burutu den proiektu kopurua. EBCn ezartzen diren lau sektoreekin duten zerikusia ere agertzen da.

4. taula. KHPren 4. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017

| EKINTZA ILDOA                                                                                             | JARDUERAK                                                                                                                   | PROIEKTU KOPURUA, 2017 | BEKTOREAK |    |    |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|-----------|----|----|----|
|                                                                                                           |                                                                                                                             |                        | V1        | V2 | V3 | V4 |
| 1. GAUR EGUN KANPOKO EUSKAL GIZATALDEA OSATZEN DUTEN TALDEAK KONEKTATZEA                                  | 1 Kanpoko euskal gizataldea harremanetan jarriko duen sare bat zehaztu eta martxan jartzea: Global Basque Network           | 1                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
|                                                                                                           | 2 Euskal jatorriko pertsonak eta Euskadizaleak identifikatzea                                                               | 2                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
|                                                                                                           | 3 Nazioartean ezaupide eta/edo posizio garrantzitsua duten euskal jatorriko pertsonak identifikatu eta harremanetan jartzea | 0                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
|                                                                                                           | 4 Euskadin kanpoko euskal gizataldeko kideekin aldizkako topaketa egitea                                                    | 1                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
| 2. EUSKAL EMIGRAZIO ETA DIASPORAREKIN ERLAZIONATUTAKO ZERTZELADEI BURUZKO IKERKETA ETA EZAGUTZA SUSTATZEA | 1 Euskal emigrazio eta diasporari buruzko azterlan eta argitalpenak babestea                                                | 5                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
|                                                                                                           | 2 Akademiko eta ikertzaileekin elkarlanean euskal emigrazio eta diasporari buruzko nazioarteko mintegi eta topaketak egitea | 3                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
|                                                                                                           | 3 Euskal emigrazio eta diasporaren ahozko lekukotasunen base dokumental bat sortzea                                         | 0                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
|                                                                                                           | 4 Diaspora eta emigrazioari buruzko erakusketa ibiltariak egitea                                                            | 2                      | ✓         | ✓  |    | ✓  |
| 3. EUSKAL ETXEEN                                                                                          | 1 Euskal errealtatearen zabalkundea egiteko bide gisa Euskal Etxeek duten rola indartzea                                    | 2                      | ✓         |    |    |    |

|                                                                                   |   |                                                                                                      |    |   |  |  |  |
|-----------------------------------------------------------------------------------|---|------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|---|--|--|--|
| SAREAREN<br>BITARTEZ<br>KANPOKO EUSKAL<br>GIZATALDEA<br>SENDOTZEN<br>LAGUNTZEA    | 2 | Euskal Etxeen eta euren herrialdeetan kokatutako beste diaspora batzuen artean lankidetzaz sustatzea | 0  | ✓ |  |  |  |
|                                                                                   | 3 | Euskal Etxeen jarduerak indartzea presentzia duten gizarteetan                                       | 1  | ✓ |  |  |  |
|                                                                                   | 4 | Euskal Etxeak informazioaren eta komunikazioen teknologiak erabiltzera bultzatzea                    | 3  | ✓ |  |  |  |
|                                                                                   | 5 | Gazteen eta emakumeen presentzia bultzatzea Euskal Etxeen bizitasunean                               | 1  | ✓ |  |  |  |
|                                                                                   | 6 | Euskal Etxeen sarea handitzea, bereziki leku berrietan                                               | 1  | ✓ |  |  |  |
| 4. KANPOKO<br>EUSKAL<br>GIZATALDEA<br>OSATZEN DUTEN<br>PERTSONEI ARRETA<br>EGITEA | 1 | Premia larriko egoeran dauden familia unitateei laguntza ematea                                      | 1  | ✓ |  |  |  |
|                                                                                   | 2 | Euskadira itzultzen diren euskal herritarrei eta euskal jatorrikoei aholkua eta babesa ematea        | 1  | ✓ |  |  |  |
| GUZTIRA                                                                           |   |                                                                                                      | 24 |   |  |  |  |

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Helburu estrategiko honetako lehen ekintza ildoaren barruan egindako lana («**Gaur egun kanpoko euskal gizataldea osatzen duten taldeak konektatzea**»), besteak beste, *Basque Global Network* sendotzera zuzenduta egon da, gaur egun euskal diaspora osatzen dutenak elkarri konektatzeko tresna baita. Hori gogoan hartuta, aplikazioak garatu dira eta sare hori beste sare sozial batzuetara lotu da, erabilera errazteko. Halaber, barruko eta kanpoko kanpainak egin izan dira ezagutarazteko, eta horren ondorioz 2017ko abenduaren 31n 902 erregistratu zeuden.

Ildo honen barruan diru laguntza batzuk kudeatu dira, kanpoko euskal gizataldeko kideen azterketa genealogikoak egiteko, eta euskal unibertsitate sistema Estatu Batuetan sustatzeko. Era berean, Euskal Diasporaren Eguna ezartzeko prestalan sakonak egin dira. Ildo horretan, parte hartzeko prozesu bat ezarri da kanpoko euskal gizataldeen eta oro har euskal gizartearen artean, Diasporaren Eguna ospatzeko egunik onena zein ote den aukeratzeko, eta irailaren 8a izan da emaitza, Joan Sebastian Elkano zenak munduari itzulia egiten amaitu zuen urteurren eguna.

Ezarritako bigarren ekintza ildoari dagokionez («**Emigrazio eta diasporarekin erlazionatutako zertzeladei buruzko ikerketa eta ezagutza sustatzea**»), jarduera bereziki zentratu da diasporarekin erlazionatutako azterlan eta argitalpenak sustatzen, eta azpimarratzekoak dira Mexikon diruz lagundutako argitalpen bat (Colegio de San Ignacio), *Basque Studies Program* programa, ikertzaile bekadun bi Nevadako Unibertsitatean Renon dituenak, eta *Euskal Etxeak Digitala* astekariaren 35 ale argitaratu izana, besteak beste.

Beste alde batetik, nabarmentzekoa da «Memoria Bizia» programaren barruan egin den lana, euskal emigrazioaren ahozko lekukotasunak jasotzen baititu Estatu Batuetan eta Kanadan.

Esparru honetan, jarraipen bilera egin zen, eta aurrera egin da Argentinan ahozko lekukotasunak jasotzen, proiektua Ameriketako beste herrialde batzuetara hedatzeko helburuz.

Era berean, diasporari buruzko ezagutzaren sustapenaren barruan, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioarekin aritu gara elkarlanean hitzarmen bat egiteko, Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketen mundu osorako plan bat bultzatze aldera, eta, ildo beretik, *Basques in California* proiektuaren lanetan aurrera egin da, eta izan liteke aurrerantzean *Basques in the West and Beyond* izenburua hartzea.

Laugarren helburu honen hirugarren ekintza ildoaren barruan (**«Euskal Etxeen sarearen bitartez kanpoko euskal gizataldea sendotzen laguntzea»**), euskal errealitatearen berri emateko Euskal Etxeek duten rola indartzera bideratutako ekintzak burutu dira, antolakunde hauei zuzendutako diru laguntzen deialdiak eginez, eremu honetako espezializazio beken programatik, eta etorkizuneko programa deialdietarako teletramitazio eredua diseinatzeko lana hasiz. Ildo horretan, Euskal Etxeak IKTetara erakartzen ere lagundu dugu euskaletxeak.eus ataria eguneratuz, *Basque Heritage Kultur Elkarteari* diru laguntza emanez euskalkutura atariari laguntzeko, eta euskal presentzia nazioartean azaltzen duen AboutBasqueCountry blogari laguntza emanez. Era berean, gazteen presentzia bultzatu da Euskal Etxeetan, Gaztemundu programaren beste deialdi bat eginez, eta Euskal Etxe berri bat gehitu zaio Euskal Etxeen Erregistro Ofizialari, 191.a da: Saint-Pierre eta Mikelune. Nabarmendu egin da, halaber, Buenos Aireseko Laurak Bat, munduko Euskal Etxerik zaharrenaren 140. urteurrena dela-eta emandako babesa, 2017 urte osoan zehar ekintzak ospatzeko zituen programa batekin, Kultura sailburuaren bisita eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarena barne. Jarduera hauen artean bereziki gogoratzekoa da Basque Country-ren aurkezpena «Buenos Aires celebra al País Vasco»-n, batez beste 20.000 pertsona han zirela.

Azkenik, eta laugarren ekintza ildori dagokionez (**«Kanpoko euskal gizataldea osatzen duten pertsonen arreta egitea»**), jarduera zentratu da 2017ko programaren deialdia egiten eta hura ebatzen, programa horren bidez Euskal Etxeei diru laguntzak ematen zaizkie sorospen beharrean eta muturreko behartasun egoeran dauden euskal gizataldeetako pertsonen laguntzeko, eta Euskadiko Gazteak Itzultzeko Programaren esparruko eskaerei laguntzen ere zentratu da.


## 2.5 6. helburu estrategikoaren ildotik egindako jarduerak: «Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea handitzea»

KHPren seigarren helburua **euskal kanpo harremanen estrategia politiko-instituzionala zehaztu eta koordinatzeko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak dituen instrumentu eta tresnak finkatu, optimizatu eta maximizatzea** da. Ikuspegi horretatik, helburu hau lau ekintza ildotan banatzen da:

- **6.1 Kanpo harremanen koordinazioa finkatzea**
- **6.2 Gizarteak Euskadiren nazioartekotze prozesuan parte hartzea aktibatzea**
- **6.3 Euskadiren kanpo harremanak profesionalizatzea**
- **6.4 Ordezkaritzekiko koordinazioa finkatzea**

2017an, helburu honetako jarduerak Euskadiren nazioartekotze prozesuan euskal gizartearen parte-hartzea aktibatzerara bideratu dira (6.2) % 75, eta, horren hurrengo, kanpo harremanak profesionalizatzerara (6.3) % 19. Kanpo harremanen koordinazioa finkatzeak (6.1) osatzen du jarduera, guztiaren % 6.

**5. irudia. KHPren 6. helburuarekin erlazionatutako proiektuen kopurua eta ehunekoa, 2017**



*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta*

Ondoko taulan 2017an KHPn aurreikusitako jarduera bakoitzeko eta ekintza ildo bakoitzekoa den neurrian garatutako proiektu kopurua azaltzen da, EBCn ezarritako bektoreekin duten loturarekin batera:

## 5. taula. KHPren 6. helburuari dagozkion ekintza ildoak, jarduerak eta proiektu kopurua, 2017

| EKINTZA ILDOA                                                           | JARDUERAK                                                                                                                                              | PROIEKTU KOPURUA, 2017 | BEKTOREAK |    |    |    |
|-------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|-----------|----|----|----|
|                                                                         |                                                                                                                                                        |                        | V1        | V2 | V3 | V4 |
| 1. KANPO HARREMANEN KOORDINAZIOA FINKATZEA                              | 1 Erakundearteko komunikazio eta elkarlan mekanismoak indartzea                                                                                        | 2                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 2 Bisita instituzionalei lotutako aukeren identifikazioa eta transferentzia                                                                            | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 3 Sailarteko komunikazio eta koordinazio mekanismoak indartzea                                                                                         | 2                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
| 2. GIZARTEAK EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZE PROZESUAN PARTE HARTZEA AKTIBATU | 1 Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea                                                                                                      | -                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 2 Euskal paradiploiazia finkatzea                                                                                                                      | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 3 Euskadiren kanpo harremanak gizarteratzeko komunikazio estrategia oso bat garatzea                                                                   | 50                     | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
| 3. EUSKADIREN KANPO HARREMANAK PROFESIONALIZATZEA                       | 1 Sailean kanpo harremanetarako profila duten espezialisten izendapenari bultzada ematea                                                               | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 2 Kanpo harremanetan eta diasporari buruzko ikaskuntzetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko pertsonal teknikoarentzat etengabeko prestakuntza | 5                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 3 Administrazioan diharduten pertsonak nazioarteko erakunde eta gobernuarekin trukatzeko eta/edo mugikortasunerako programa bat diseinatzea            | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 4 Kanpo harremanetarako beka deialdiak egitea                                                                                                          | 1                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
| 4. ORDEZKARITZEKIKO KOORDINAZIOA FINKATZEA                              | 1 Antena espezializatuak jartzeko aurreazterketa                                                                                                       | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 2 Interneten presentzia estrategia bat garatzea                                                                                                        | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 3 Kanpoan Ordezkaritza berriak eta/edo herri erakundeen presentzia modu berriak sortzeko analisia                                                      | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
|                                                                         | 4 Kanpoko euskal gizataldearekin ekinbide bateratuak garatzea                                                                                          | 0                      | ✓         | ✓  | ✓  | ✓  |
| GUZTIRA                                                                 |                                                                                                                                                        | 61                     |           |    |    |    |

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta

Helburu honen barruan ahaleginak bigarren ekintza ildorako izan dira batik bat («**Gizarteak Euskadiren nazioartekotze prozesuan parte hartzea aktibatu**»), Lehendakariak Kanadara eta Kolonbiara egin dituen bidaien berri ematean komunikabideek sortu duten eraginaren bitartez bereziki eta, oro hara, Eusko Jaurlaritzak burututako nazioartekotze instituzionalaren lanagatik. Bestalde, euskal gizarterako kanpo harremanen zabalkunde lan hori berariazko jardueren bidez indartu da, adibidez Deustuko Unibertsitateko *Master of International Business* irakasten Idazkaritzak parte hartuz.

Hirugarren ekintza ildoan («**Euskadiren kanpo harremanak profesionalizatzea**»), bestalde, nazioarteko harremanen arloan *expertise* sortzen eta garatzen laguntzen duten ekintzak indartu ziren, hala nola kanpo harremanetarako bekak eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko pertsonal teknikoarentzako etengabeko prestakuntza.

Azkenik, lehenildoari dagokionez (**«Kanpo harremanen koordinazioa finkatzea»**), batez ere Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren lidergoaren bidez, EBC eguneratuz eta 2018-2020 aldirako KHP berri bat landuz ekin zaio.

Horrek parte hartzeko prozesu bat martxan jartzea ekarri du gizartea, gobernu sailak, herri erakundeak eta euskal eragile sozioekonomikoak inplikatzeko, esparru dokumentu berri hauek prestatzeko hausnarketa estrategikoaren partaide eta laguntzaile eginez.


2016-2020 Gobernu Programaren (XI. Legegintzaldia) barruan txertatutako EBC eguneratzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzari 45 elkarrizketa eta nazioartekotzeko euskal ekosistemako eragileei eta herri erakundeei 50 inkesta eginarazi zizkien: hezkuntza, kultura, enpresa, industria, turismoa, osasuna, ingurumena, kirola eta abar. Prozesua, gainera, maila anitzeko kontrastearen mende jarri zen: sailartean, Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen bilera bi eginez; erakundeartean, Kanpo Harremanetarako Erakundearteko Batzordearen bilera bi eginez; gizartean, Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua bilduz; horrela ziurtatu zen zegoen gobernantza finkatzea eta bidea zabaldu zen parte hartze zabala izateko, zehaztapen estrategikoaren prozesua aberaste aldera.

### 3 ONDORIOAK

Orokorrean, 2017 urtean Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren jarduera **2014ko KHPn ezarritako helburuak** betetzera orientatuta egon da, kontuan harturik **EBC eguneratuta eta 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plan berria aterata amaitu den hausnarketa prozesu estrategiko** bat martxan jarri izanak markatu duela ekitaldia.

Guztira, **nazioartekotzeko 250 jarduera<sup>1</sup>** egin dira kanpo harremanen eremuan. Globalki, jarduera *Euskadiren interes multisektorialak bultzatzera* (2. helburua) egon da bereziki orientatuta, eta, hurrengo, *kanpo harremanen eraginkortasunari eta kalitateari laguntzera* (6. helburua), *Europaren proiektuan parte hartzera* (3. helburua), *Europaren proiektuan parte hartzera* (1. helburua), eta *kanpoko euskal gizataldearekiko harremanak bultzatzera* (4. helburua).

6. irudia. KHPren helburu bakoitzaren proiektu kopurua eta ehunekoa, 2017



- OBJETIVO 1. PROYECTAR EUSKADI EN EL MUNDO
- OBJETIVO 2. CONTRIBUCIÓN AL DESARROLLO SOSTENIDO Y SOSTENIBLE DE EUSKADI MEDIANTE LA PROMOCIÓN EN EL EXTERIOR DE SUS INTERESES MULTISECTORIALES
- OBJETIVO 3. SER CO-PARTÍCIPES Y CO-RESPONSABLES DE LA CONSTRUCCIÓN EUROPEA
- OBJETIVO 4. PROFUNDIZAR EN LOS VÍNCULOS CON LA COMUNIDAD VASCA EN EL EXTERIOR
- OBJETIVO 6. EFICACIA Y CALIDAD DE LA ACCIÓN EXTERIOR

*Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bildu dituen datuetatik abiatuta*

<sup>1</sup> Ohar metodologikoa: Aurreko ekitaldietan 2014-2016 aldiko KHPn ezarritako jomugen arabera egiten ziren jarduerak. Jomugarik gehienak aldi horretan bete zirenez, ekintza ildo batzuetan jarduera urriagoa izan da, jomuga iritsita zegoelako. Bestalde, urteko txostenak egiteko (EBC), aurreko ekitaldietan ez zen kontuan hartzen ordezkaritzen lana jarduera batzuetako ekintzak kontatzerakoan. Horregatik, 2017rako jomugarik ez zegoenez, eta txosten honetan KHIN osoaren jarduera kontatu denez (ordezkaritza guztiak barne), ez dago urteko joeren konparazio objektibo eta koherenteak egiterik.



Lehen helburuari dagokionez (**«Euskadi munduan proiektatzea»**), **Euskadi Basque Country marka**, bere aldetik (1.1 ildo), finkatu egin da beste herrialde batzuetarako, nazioarteko erreferentzia diren ekitaldietarako eta kanpoko ordezkarietzek, atzerriko herri erakundeekin eta/edo Euskal Etxeekin elkarlanean, antolatzen dituzten ekinbideetarako Euskadiren proiektzio ikur moduan. Era berean, euskal *expertisea* kanpoan bultzatuz Euskadiren nazioarteko posizioa handitzen zentratu da lana (1.3 ildo), ikuspegi multisektorialetik, eta Idazkaritzatik euskal eragileei Euskadiri maila globalean proiektzio handiagoa dakarkioten nazioarteko programa, ekitaldi edo proiektuetan parte hartzearen ematen den laguntzaren bitartez. Horren osagarri, eragin eta irismen handiko proiektzio tresnek Euskadiren berezitasunak eta *expertisea* sektore eta herrialde lehenetsietan proiektatzen lagundu dute, adibidez **Basque Country 2030 Agendak** edo **pertsona ospetsu estatubatuarrekin egindako learning tour** jirak (azken hau, 1.2 ildoaren barruan).

Bigarren helburuaren barruan (**«Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak kanpoan sustatuz»**), jarduera nagusia Euskadiren harreman instituzionalak kanpoan areagotzea izan da (2.3 ildo). Lehendakariak atzerriko herri erakundeekin ordezkariarekin eta gorputz diplomatikoarekin eta **Europar Batasuneko goi-kargudunekin** mantendu dituen bilerez gain, eta Kolonbiara eta Kanadara egin dituen bidaia instituzionalez gain, nabarmentzekoa da nazioarteko erakundeekin harremanak areagotu izana (2.2 ildo), bereziki **Eusko Jaurlaritza – UNESCO MoU** memoranduma dinamizatuz eta **Eusko Jaurlaritza – Iberoamerikar Estatuen Antolakundea MoU** memoranduma izenpetuz. Euskadirako estrategikoak diren eskualdeekiko harremanen garapenak (2.1 ildo) ere bereganatu zituen kanpo harremanen ahaleginak: **Bavaria, Flandria, Gales eta bereziki Quebec** MoU bat izenpetu baitzuen, eta horrela Euskadiren Bazkide Estrategikoen Sarearekin bat egin, Akitania Berria, Jiangsu, Bavaria, Flandria, Querétaro eta Cundinamarcarekin batera. Eskualde estrategikoekin egindako alde biko akordio horiek gehitu egin zaizkie **Mexikon 2017an CONAVIMekin** Emakumeen aurkako Indarkeria Saihestu eta Deuseztatzeko Batzorde Nazionala) Emakundek eta **IMSSekin** (Mexikoko Gizarte Aseguruaren Institutua) izenpetutako **MoU** memorandumei.

Beste alde batetik, helburu honen barruan sustatzen jarraitu da eragileak sare tematikoetan txertatzea eta parte hartzea, bereziki Europaren esparruan, Euskadik, beste hiru eskualderekin batera, **Vanguard Initiative sare berria** sortu baitu (2.4 ildo).



Hirugarren helburuaren bidez («**Europaren eraikuntzan partaide eta erantzunkide izatea**»), Euskadik jarraitzen du Europako eremua pribilegiatzen bere interesak sustatu eta aldezteko testuinguru natural moduan, eta zuzenean laguntzen du Erkidegoaren proiektuan. Kanpo harremanen ikuspegitik, 2017an ahaleginak Euskadiren lidergoa sustatzen ardaztu da, Europan dituen interesak aldezteko (3.1 ildo), Jaurlaritzako eta euskal herri erakundeetako goikargudunei Europako erakundeekin bisitak eta bilerak egiteko bideak zabalduz, bai eta **Brexitaren Jarraipen Batzordea** sortuz ere, erakundeartean, maila anitzetik eta ikuspegi publiko-pribatuarekin. Horrekin batera, euskal eragileentzako babes handitu da **Europako plataforma, ekinbide, proiektu eta ekitaldietan** (3.3 ildo), eta **mugaz gaindiko lankidetzak indartu** da (3.2 ildo), **Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa LLET berria** indarrean hasita, eta oraintsu sortutako **Euskal Hirigune Elkargoarekin** izan litezkeen lankidetzak aukerak ikusita.

Laugarren helburuaren barruan («**Atzerriko euskal gizataldearekin harremanak sakontzea**»), nabarmentzekoak dira diasporaren ikerketa eta ezagutza sustatzeko egin diren ahaleginak (4.2 ildo), **Euskal Diasporaren Eguna** aukeratzeko ireki den parte hartzeko prozesuarekin, eta kanpoko euskal gizataldea sendotzen laguntzeko egin direnak (4.3 ildo) Euskal Etxeen Sarearen bidez, izan ere, 191. Euskal Etxea sortu berri da Frantziako Saint-Pierre eta Mikelune itsasoz haraindiko kolektibitatean. Era berean, lan sakona egin da gaur egun kanpoko euskal gizataldea osatzen duten taldeak konektatzeko (4.1 ildo) bereziki **Basque Global Network** sarearen erabilera dinamizatuz, bultzatuz eta erraztuz, izan ere, 2017 urte amaieran ia mila erabiltzaile baitzituen aurreko urtean martxan jarri zenetik bilduak. Era berean, kanpoko euskal gizataldea osatzen duten pertsonen arreta egitea (4.4 ildo) indartzen jarraitu da, batez ere Euskadira itzultzen diren euskal herritarrei laguntza emanez.

Seigarren helburua («**Kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea**») gizarteak Euskadi nazioartekotzen parte hartzea aktibatzeri (6.2 ildo) orientatuta egon da, batez ere enpresen nazioartekotze ekintza batzuek **komunikabideetan eraginez**, esaterako Lehendakariak atzerria egin dituen bidaiak. Euskadiren kanpo harremanak profesionalizatzen ere lagundu da (6.3 ildo) bereziki **kanpo harremanetarako bekak** aterata. Azkenik, seigarren helburu honetan sartzen da **EBC eguneratzeri begira eta 2018-2020 aldirako KHP berria prestatzeri begira parte-hartzeko hausnarketa prozesu bat martxan jarri izana**, 2017an Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren baliabideen eta ahaleginen zati handi bat bereganatu dituen, eta kanpo harremanen koordinazioa finkatzen laguntzen duena (6.1 ildo).

Ildo horretan, Idazkaritzak EBCrako diagnostiko prozesua eta birzehaztapen estrategikoarena gidatu ditu, Eusko Jaurlaritzako sailak, bere sektore publikoa eta kanpoko eragile multisektorialak inplikatur, maila anitzeko eta sektore anitzeko ikuspegiarekin eta elkarlan publiko-pribatuarekin estrategia bat eraikitzeko, eta helburu eta bektoreak, arlo tematikoak eta arlo geografiko interesgarriak eguneratuz, eta gobernantza eta kontrol eredua optimizatuz.

**2018-2020 KHP berria** dela eta, **egitura bizkor eta zeharkako** baterantz bideratu da, **efizientzia eta optimizazioa** oinarri hartu dituen ikuspegi batetik. **Ikuspegi eta orientazio berriak** sartu zaizkio, aurreko urteetan erdietsi diren mugarri eta lorpenak kontuan hartzen dituztenak, eta datozen urteetan munduan izango den testuinguru geopolitikotik eratorriko diren erronkak eta aukerak ere bai. Lehentasun estrategikoak identifikatu dira Euskadira 2020 arte eta, horren ildotik, **Idazkaritzarako hiru helburu estrategiko** ezarri dira:

1. ***Euskadiri eragile globalaren posizioa ematea*** (Euskadi Basque Country markaren zabalkundea eginez, Euskadin 2030 Agendaren ezarpena bultzatuz eta adimen lehiakorra eta nazioartekotze arloko ezagutza sustatuz).
2. ***Euskadiren presentzia indartzea Europan*** (Euskadik EBren erabakitze prozesuetan parte hartuz eta euskal eragileek Europako proiektu eta ekinbideetan parte hartuz).
3. ***Munduko euskal interesak bultzatzea*** (Euskadik kanpoan dituen interes sektorialeki bultzada emanez, aliantza estrategikoak garatuz eta finkatuz, eta euskal gizartea «diasporatu» eta kanpoko euskal gizataldea indartuz).

KHP berriak, 2018an indarrean hasi denak, hiru helburu hauek zortzi ekintza ildotan eta hogeita hamabost jarduera zehatzetan egituratzen ditu, horietako batzuek gauza berriak dituzte, esate baterako *Euskadi Basque Country Laguna* aitortza, *Basque Country Eguna* martxan jartzea, diplomazia publikoko ekintzak, edo eskualdeekin, herrialdeekin eta nazioarteko erakundeekin laguntza teknikoko proiektu bateratuei kanpoan babesa emateko ildo bat.

EBCren kasuan bezala, jarraipen eredua berraztertu da, eta proposatutako jarduera bakoitzerako adierazle eta jomugak eguneratu dira, eta, beraz, egiten den lanaren kontrola datozen urte ekitaldietan errazagoa izango da.

